

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiko Agenda 21eko Foroa 2010eko otsailaren 4an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean
18:30etik 20:00etara



Habla poquísimo de ti, poco de los otros, mucho de las cosas
Paolo Mantengazza

Gaiak:

- 2009an zehar Legazpiko Tokiko Agenda 21eko Ekintza-plana gauzatzeari buruzko ebaluazioaren eta aurrerapen-mailaren gaineko hainbat ohar.
- Foro honek 2010ean landuko dituen gaien programazioa eta egutegia.
- Legazpiko Agenda 21eko Foroaren saioak Urola Telebistaren bidez komunikatzea eta zabaltzea.
- 2010ean eta aurrerantzean, Udalak Garapen iraunkorreko Planean jasotako hainbat proiektu gauzatzeko asmoa du. Horien aurkezpena eta alde nabarmenak.

Aztertuko ditugun gaiak mahai gainean ditugula eta hasierako elkarteak eta agurrak burutu ondoren, hasiera eman diogu Legazpiko Agenda 21eko Foroaren 2010eko lehenengo tailerrari. Goazen ba!

Zeintzuk? Pertsonak eta talde protagonista

Gaur saioan eztabaidatu diren gaietan oso interesatuta egon diren herritarren parte hartzea izan dugu. Urteari hasiera emateko beraz, ondoko energia dugu:

Montse Vallejo ♦ Isabel Vallejo (Olazabal institutua) ♦ Bixente Garmendia (zinegotzia) ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Rafael Gómez ♦ Jose Luis Cid ♦ Ester Agirre ♦ Ana Moreno (EILUZ) ♦ Ramon Arrese ♦ Sagrario Diaz ♦ María Jose Cantero (Nagusilan) ♦ Jose Ramon Hernandez (Nagusilan) ♦ Elías Sagastizabal ♦ Arantxa Segurola (Haztegi Ikastola) ♦ Joxan Auzmendi (Ingurugela de Legazpi) ♦ Sole Arostegi ♦ Ana Manzanos ♦ Eugenio Gil ♦ Floren Gutierrez ♦ Junkal Fernandez ♦ Iñaki Mauleon (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Eneko Aseginolaza ♦ Agurtzane Elustondo (Lenbur) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Ixiar Ugalde (udal arkitektoa) ♦ Jone Azpeitia (nekazaritzako eta hirigintzako teknikaria) ♦ Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Zorione eta Iciar (Prometea, SC).

Guztiori, eskerrik asko!!! Zuen parte-hartzearekin itxura, kolorea eta berotasuna ematen diozuelako Legazpiko Agenda 21eko Foroari. Mila esker!

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Tailerra gaiaz gai

1. Hainbat ohar 2009ko lanaren ebaluazioari buruz

Inmak adierazi digunez, une honetantxe 2008-2014 epealdirako osatu den Legazpiko Agenda 21eko Tokiko III. Ekintza-plana ari gara garatzen. Udalak egin duen ebaluazioaren arabera, Plana burutzeko lehenengo bi urteotan honako datuak jaso ditugu:



oraindik hasi gabe.

- 2009ko urte bukaeran Ekintza-planaren inplementazio-maila %30ekoa zen.
- Lerro estrategikoei erreparatuz gero, ondoko lerro hauetan aurreratu dugu gehien: Klimaren aldaketaren aurkako borroka eta mugikortasuna, kontsumo jasangarria eta hirigintza.
- Planean jasotako ekintzen %8 beteta daude edo bukatzen ari dira; %15 oso aurreratuta daude; ekintzen %52 hasita daude eta %25

- Labur esanda, "*aurrera goaz eta planaren garapena ere aurrera doa*".

2. Foroaren tailerren programazioa eta egutegia 2010. urterako.

Legazpiko Agenda 21eko Foroak burutuko dituen tailerren egutegia iazko azkeneko saioan Foroak berak ezarri zituen lehentasunezko emaitzen arabera diseinatu da. Akta honen eranskinean ikus daitekeenez, egutegiaren arabera hileroko saio bat egingo da, uztailan, abuztuan eta irailean izan ezik. Hiru hilabete horietan "jai" hartuko dugu. Horrezaz gain, martxorako bi saio aurreikusi dira.

Bestalde, aurten Eskolako Agenda 21eko Foroari tratamendu berezia emango diogu:

- Batetik, apirilaren 20an, goizetik, Legazpiko ikastetxeetako ikasleak alkatearekin eta zinegotziekin elkartuko dira.
- Eta bestetik, gonbidapena luzatuko diegu ikasle horiei eta apirilaren 22rako aurreikusi dugun Agenda 21eko Foroaren saioan gurekin parte hartzeko deia luzatuko diegu. Gaia: kontsumo arduratsua.

Oharra: Foro hau egin ondoren, Udala Legazpiko natur eta kultur ondarearen inbentarioa egingo duen Aranzadi enpresa lan-hartzailearekin elkartu da bilera batean eta, ondorioz, *ekainean eta urrian egingo diren saioetan aztertuko diren gaiak aldatu egin dira*. Aldaketa hori eranskinean jaso da.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

3. Foroaren saioak Urola Telebistan eskaintzea

2010erako Foroak bere buruari ezarri dizkion helburuetako bat honako hau da: Foroaren funtzionamenduan eta antolaketan etengabeko hobekuntzarako neurriak eta ekintzak sartzea. Horretarako, gaur bi gai espezifiko aztertu ditugu:

- Horrela, Foroaren saioak Urola Telebistan eskaintzeko aukera aztertu dugu; modu horretan egiten dugun lanaren berri eman diezaiekegu gainerako herritarrei eta, ahal bada, parte-hartzaile gehiago erakarri.

Jon Erramun Urola Telebistako arduradunekin jarri da harremanetan eta dauden aukera desberdinak adierazi ditu: Kamera finkoa jar daiteke saio osoa grabatzeko edo pertsona batek graba ditzake saioko une desberdinak: aurkezpenak, talde-lana,....



Azalpenaren ondoren, proposamenaren alde onak eta txarrak aztertu ditugu eta iruzkin desberdinetan behin eta berriz errepikatzen den ideia sortu da: *"kamerarekin agian lotsatu egingo gara"*. Bestalde, aukera desberdinak planteatu ditugu: Gai zehatz bati buruz foro informatiboa grabatzea edo publizitateko iragarki bat egitea edo

Azkenean, gaia aztertu ondoren, **honako erabakia hartu dugu:**

- Proba egitea; saio bat grabatzea eta gero ikusiko dugu ea zer iruditu zaigun eta ze aukerak sortzen diren.

Horretarako, bi kamera ditugu: Batzar aretoan bertan dagoen kamera finkoa edo Joxan Auzmendik eskainitakoa.

- Foroaren lana biltzen duten aktak hobetzeko aukerak.

Inmak aktak baloratzea eskatu die Foroko kideei: egokiak al dira?, ondo jasotzen al da bileretan egindako lana?, luzeak al dira?, berandu iristen al dira (bi hizkuntzatan direnez denbora behar baitugu itzulpena egiteko)??



Eta taldearen erantzuna argia izan da: *"aktak oso ondo daude eta zertxobait lehenago bidaltzeko aukera izanez gero, hobeto; baina bestela, ez da ezer gertatzen"*.

4. 2010erako aurreikusi diren mugikortasun iraunkorreko Planean jasotako udal proiektuen aurkezpena eta alde nabarmenak.

Ixiar Ugalde udal arkitektoaren txanda da; berak azalduko dizkigu Udalak lau proiekturi buruz kontuan izan dituen proposamenak:

- Haztegi ikastolaren inguruan, Santikutz kaleko bidegorriaren egokitzapena.
- Santikutz kaleko espaloia zabaltzea, Meazti Etxearen eta Santa Cruz egoitzaren parean.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean


- Kultur Etxea eta Juanastegi kalea lotuko dituen igogailuaren instalazioa.
- Latxartegi parkeko lurpeko aparkalekua.

Ixiarrek eta Sotek adierazi digutenez, lehenengo hiru proiektuak tokiko inbertsioetarako estatuko Fondora edo II. E Planean sartzeko aurkeztu dira, 2010ean haiek finantzatzeko aukera izan dezagun. Oraindik ez dugu erantzunik jaso baina baiezkoa jasotzea espero du Udalak.

Proiektu bakoitzaren xehetasunei dagokienez, hona hemen Udalaren proposamenak:

- **1. Proiektua.** Haztegi ikastolaren inguruan, Santikutz kaleko bidegorriaren egokitzapena

Bidegorria bi noranzkoa da (eta planoan gorritz markatuta ageri da) eta kalearen ezker aldean doa. Ibilgailuen trafikoa noranzko bakarrean mantentzen da.



Eskuinaldean, ibilgailuek ilaran aparkatu ahal izango dute.

Gainera, kalea ez da zuzena geratuko eta horren ondorioz autoek abiadura murriztuko dute ezinbestean. Kaperaren aurrean dauden ezkiak hor utziko dira.

Momentuz eta lurpeko aparkalekua egin arte, Latxartegin bidegorria galtzadaren maila berean egingo da.

Taldeko kideek adierazi dutenez, interesgarria izango litzateke "ostatuko horma atzera botatzea", espaloia eta bidegorriaren ibilbideak zuzenak izan daitezzen.

- **2. Proiektua.** Santikutz kaleko espaloia zabalitzea, Meazti Etxearen eta Santa Cruz egoitzaren parean



Tarte horretan espaloia oso estua da; horregatik, helburua espaloia zabalitzea da.

Zentzu horretan, hauxe da proposamena: espaloian, farolen ondoan, dauden zuhaitz txikiak bertatik kendu eta egoitzaren barrualdean (hormaren bestaldean) landatzea. Farolak horma-

ren parean jarriko dira.


Horrela eginez gero, eta egoitzako horma zertxobait atzera botaz gero, 2,50 metroko zabalera izango duen espaloia lortzen da eta bidegorria espaloia maila berean jarri ondoren, zonaldea zabalagoa izatea lortuko da.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

3. Proiektua. Kultur Etxea eta Juanastegi kalea lotuko dituen igogailuaren instalazioa

Ixiarrek azaldu digunez, Legazpiko mugikortasun iraunkorreko planean, zonalde horretan igogailu inklinatua jartzea planteatu zen. Hala ere, gai horren inguruan eskatu den azterketaren emaitzak ezagutu ondoren, Udalak ohiko igogailua eta pasabide bat jartzea erabaki du, igogailu inklinatua ezartzeko kostua eta mantentze-lanen kostua handiagoa delako.



Hauxe da igogailu berriaren proposamena:

- 2,40 metroko zabalera izango duen pasabidea jarriko da; estalkirik gabe, egurrezko zoruarekin eta goitik argizatuta. Pasabidearen muturrean "balkoi" bat jarriko

da.

- 26 metroko altuera izango du igogailuak baina ibilbidearen erdialdean erdibideko irteera jarri beharko da, horrela egitera behartzen duelako segurtasun eta larrialdietarako araudiak.

Proposamena aurkeztu eta taldeak eztabaidatu ondoren, taldearen ustez lehentasunezko irizpidea izan behar du igogailuaren eta bere azpiegituraren **segurtasuna** bermatzea. Horregatik, taldeak honako proposamena egin du:

- Pasabidearen zati bat behintzat ixtea edo estaltzea, alboetatik inor ere eror ez dadin. Neurri horren alde ona aipatzeaz gain, egon daitezkeen eragozpenak azaldu dira: Udan eta bero handia egiten duen egunetan "pasabidea labea izango da", eta neguan leku aproposa izan daiteke botila-festak egiteko.
- Balkoia edo igogailuaren begiratokia kentzea (aipatu segurtasun-irizpidea betez).
- Larrialdietarako irteera itxita egoteko zein aukerak dauden aztertzea; edo, irteera hori larrialdietan suhiltzaileek edo udaltzainek bakarrik ireki dezatela.

Horrezaz gain, igogailua martxan jarri eta egingo den erabilera (okerra edo egokia) ikusi eta gero, honako bi aukerak aztertuko dira:


- Zaintzeko kamera bat jartzea.
- Igogailuaren erabilera kontrolatzea eta murriztea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

4. Proiektua. Latxartegiko plaza eta lurpeko aparkalekua

Proiektu honek Latxartegi parkearen goialdea hobetzea eta egokitzea eta lurpean aparkalekua egitea aurreikusten du.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi


Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Plazaren goialdea birmoldatzeko proiektuan ondokoa aurreikusten da:

- Berdeguneak alboetan pilatzea (eta, modu horretan, aparkalekuarekin bateragarri egin).
- Erdialdean plaza bat kokatzea, erdian kioskoa eta inguruan eserlekuak jarriz.
- Haur txikienentzako jolasleku desberdinak irabaztea (planoan urdinez markatuta daude) eta 6-8 urte bitarteko haurrentzat beste leku bat gordetzea (eskuinaldean, irristatzeko gune bat barne hartuz).
- Lurpeko aparkalekura joateko sarbide desberdinak aurreikusi: Eskailera bat ezker aldean, arrapala eskuinaldean eta pasabide bat.

Lurpeko aparkalekuari dagokionez:



- Gutxi gorabehera 100 ibilgailu aparkatzeko plazak izango ditu eta oinezkoentzako 3 irteera (horietako bat igogailuarekin).
- Minusbaliatuentzako 4 plaza gordeko dira eta horiek igogailuaren ondoan kokatuko dira. Horietako plaza bat urrinago gelditzen da eta gaur egun propanoko depositua dagoen tokian

berregokitzeko zain geratzen da.

- Gainera, aparkalekua eta ondoan geratuko den bizilagunen aparkalekua lotzeko egon daitekeen aukera aztertu da; aukera hori, ikastolak Latxartegin duen eraikinaren inguruan gaur egun sortzen diren ataskuak konpontzeko modua izan daiteke. Irtenbide horrekin bizilagunak ohiko lekutik sartuko lirarteke garajeetan eta irten, aldiz, aparkaleku berritik egin daitezke.

Aurkezpenaren ondoren, hona hemen taldeko kideek egin dituzten iruzkinak:

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- Zergatik ez da lurpeko bigarren solairu bat planteatu? Soterok arkitektoen taldeak zonalde horren azterketa teknikoa egin duela eta bigarren solairua egiteak kostua handia izango lukeela erantzun du (harria dago eta lana garestitu egiten du horrek).
- Parkeko hormako harriak berriro erabiliko al dira? Ixiarrek baloratu egingo dela erantzun du; lauza txikiak baldin badira ezin dira berrerabili. Ikastolako hormako harriak, aldiz, berrerabili egin dira.
- harrizkoak zirelako.
- Kontsultatu al zaie parkearen diseinua erabiltzaileetako batzuk izango diren haurrei? Ixiarrek eta Inmak adierazi dutenez, diseinu hori egiteko mugikortasun iraunkorreko Planari aurkeztu zitzaizkion alegazioak hartu dira kontuan; dena den, Udalak proposamen hori jaso du eta aukera ona izan daitekeela uste du arkitektoen taldeak haurrekin lan egin dezan.
- Taldeak aparkalekuaren irazgaiztea zaintzeak duen garrantzia azpimarratu du, ondoren arazoak sor ez daitezen (Bikuñako esperientzia ikusita). Ixiarrek gai horretan asko aurreratu dela erantzun du eta arkitektoek oso barneratuta dute gaia eta asko zaindu dute. Hala ere, berrikusi egingo du proiektua.
- Taldeak Latxartegiko plaza berrian bizikletak aparkatzeko tokia bat egokitzea proposatu du.

- **Lau proiektuetako aurrekontuak:**

Proiektu bakoitzaren xehetasun teknikoak ezagutu ondoren, bakoitzaren kostuaz galdetu diogu Ixiarri. Hona hemen eskatutakoaren xehetasunak:

- Santikutz kaleko obraren aurrekontua. Lehenengo fasearen kostua 116.000 €a iristen da (BEZ eta bestelako kontzepturen bat gehitzea falta da). Bigarren fasearen eta materialaren kostua, gutxi gorabehera, 236.000 €koa izango da.
- Igogailuaren aurrekontua: 615.000 €.
- Eta aparkalekuarena eta plazarena: 2.500.000 €.

Ixiarrek esan digunez eta lehen aipatu dugun bezalaxe, Santikutz kaleko proiektuak eta igogailuarena tokiko inbertsioetarako estatuko Fondora edo II. E Planean sartzeko aurkeztu dira, 2010ean haiek finantzatzeko aukera izan dezagun (eta momentuz ez dakigu onartuak izan diren). Latxartegi parkeko proiektuari dagokionez, Udalaren hasierako helburua proiektua eta haren kostua esku artean izatea zen; ondoren, proiektua kudeatzeko eta finantzatzeko moduak aztertuko dira.

Arratsaldeko 8ak puntu puntuan dira eta Santa Agedako koruak entzuten dira; beraz, **bukatu egingo dugu gaurkoz!**

Gaurko saioa bi galderekin edo iruzkinekin bukatu dugu:



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- *Zergatik lehenetsi da Juanastegiko igogailua jartzea eta ez Itxaropen auzora doana?* Juanastegiko igogailua lehentasunezkoa izango zela erabakitzeke Legazpiko mugikortasun iraunkorreko planean jasotako irizpide teknikoak hartu dira kontuan; Plan hori, bestalde, udal Osoko Bilkuran onartu zen aho batez.
- *Proposamen bat! Zergatik ez da aparkaleku bat egokitzen paper-fabrikako "igerilekuak" dauden tokian?* Lur gaineko aparkalekua izan daiteke (bertan dagoen zuloa lurrez betez); edo altueran edo pisuka (horrela aukera emango genuke Legazpin matrikulatuta dauden autokarabanak bertan aparkatzeko).

Eta ideien, hausnarketen eta proposamen ozenen artean, amaiera eman diogu gaurko tailerrari. Eta agur esaten dugu datorren martxoaren 4an egingo dugun hurrengo saiora arte. Berriro elkartuko gara gero eta gehiago geurea den topaleku honetan!

**Eta hori guztia, zuri eta taldeari esker
Eskerrik asko!!!**

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Eranskina: Calendario 2010 / 2010eko Egutegia

ENERO-URTARRILA							FEBRERO-OTSAILA							
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7	2.1.13. Proiektua Espaloiak zabaltzea Meazti arean, 2.1.7. Bidegorria osatzea... eta 2.1.9. Igogailuak jartzea
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	
25	26	27	28	29	30	31								
MARZO-MARTXOA							ABRIL-APIRILA							
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	1.2.1. Proiektua. Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa (I. saioa) 2.5.4., 2.5.7., 2.5.8., 8.2.1. proiektuak energia-eraginkortasunaren gaineko gaiei buruzko informazioa eta gai horiek herritarren artean zabaltzea
8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14	
15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18	
22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25	
29	30	31					26	27	28	29	30			
MAYO-MAIATZA							JUNIO-EKAINA							
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	
					1	2	1	2	3	4	5	6	7	3.1.1., 3.1.2 eta 3.1.3. proiektuak, "JAKIN", "NAHI" eta "AHAL" sentsibilizazioari eta kontsumo arduratsuari buruz (II. saioa), merkatariekin elkarlanean.
3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13	
10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20	
17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27	
24	25	26	27	28	29	30	28	29	30					
31														
JULIO-UZTAILA							AGOSTO-ABUZTUA							
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	
			1	2	3	4							1	
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	
26	27	28	29	30	31		23	24	25	26	27	28	29	
							30	31						
SEPTIEMBRE-IRAILA							OCTUBRE-URRIA							
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	
		1	2	3	4	5					1	2	3	1.2.1. proiektua. Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa (II. saioa)
6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10	
13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17	
20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24	
27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31	
NOVIEMBRE-AZAROA							DICIEMBRE-ABENDUA							
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	3.2.3. proiektua Bertako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren alde
8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12	
15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19	
22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26	
29	30						27	28	29	30	31			
														1.2.1. proiektua. Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa (III. saioa)